Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Terese Olaeta Torrezuri
Gernika-Lumo, Bizkaia (1939)

Aurkibidea

Biografia

Bidarten (Lapurdi) jaio zen, gerraren ondorioz gurasoak (Segundo Olaeta eta Rosario Torrezuri) bertara joanak zirelako. Aitak Olaeta dantza-taldea sortu zuen eta Miren Teresek bertan dantza egin zuen ume-umetatik. Horrez gain, piano ikasketak egin zituen Bilbon eta Parisen. 1988. urteaz geroztik Ballets Olaeta dantza-taldeko irakasle eta Bilboko Olaeta Akademiako zuzendari. Lumoko kontuak jasotzeko Juan Cruz Torrezuri osabari egin zioten elkarrizketan parte hartu zuen.

Zintak

GER-019

- **Proiektua**: Lumoko historia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zarrabeitia, Alberto
- **Data**: 1994-01-01
- **Iraupena**: 84 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Sallabente jaietako aurreskuak

- **Erref**: GER-019/002
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:01:59. **Bukatu**: 00:04:42
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Plaza mutilak, auzoko mutilak, izaten ziren jaietan aurreskua egiten zutenak. Alkateari baimena eskatzen zioten. Gizon helduak izaten ziren eta euren alabak ateratzen zituzten dantzara. Sallabente jaietako bigarren egunean neskek egiten zuten aurreskua eta gizon helduak ateratzen zituzten dantza. "Erregelak" dantza egiten zituzten dantzariak: Rufino "Mili", Bartolo eta Anton.

2. Santa Apolonia jaia kendu zuteneko protesta

- **Erref**: GER-019/004
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:05:37. **Bukatu**: 00:06:42
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Santa Apolonia egunean inguruetako emakumeak briskan jokatzera joaten ziren. Jaia kendu zutenean, mutikoak Gernikara bidali zituzten, bolanderak erostera. Lumora begira jarri eta bolanderak bota zituzten, protesta gisa.

3. Amak eraztuna eskaini Santa Apoloniari

- **Erref**: GER-019/006
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:08:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Miren Tereseren amaren inguruko kontakizuna: Gernikako bonbardaketan lehengusu bat hil zuten eta Karmelitetara joan zen haren gorpua ikuskatzera. Etxera bueltan zetorrela, Santa Apoloniari eraztun bat eskaini ei zion.

4. Santa Ageda koplak

- **Erref**: GER-019/010
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:13:36. **Bukatu**: 00:14:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Etxeko neska gazteei kantatzen zitzaizkien Santa Ageda koplak: "Hor goixen landetan...". Aititak iloba bakoitzarentzat "lore" bat ei zuen eta kantatu egiten zien.

5. Urte barri egunean umeak eskean

- **Erref**: GER-019/012
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:14:28. **Bukatu**: 00:15:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Urte barri egunean 12ak jotzen zituenean, panderoa jo eta inguruetako umeak kantuan irteten ziren. Laranjak, intxaurrak, txokolate ontza bat edo diru apurren bat batzen zuten.

6. Kandelario eguneko kanta

- **Erref**: GER-019/014
- **Iraupena**: 0:00:14. **Hasi**: 00:15:39. **Bukatu**: 00:15:53
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Kandelario eguneko kanta.

7. Bedeinkatutako gurutzeak eta kandelak

- **Erref**: GER-019/018
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:21:53. **Bukatu**: 00:22:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Erramu egunean bedeinkatutako gurutzeak eta ereinotza soroetan eta atean ipintzen ziren. Kandelario egunean, berriz, kandelak bedeinkatzen ziren eta gero ekaitza zetorrenean piztu.

8. San Juan gauean sua eta kantak

- **Erref**: GER-019/020
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:23:10. **Bukatu**: 00:24:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
San Juan bezperan sua egiten zen eta abestu: "San Juan dabil soloetan...". Gero, aitak "estanpa" moduan erabili zuen hori: amamari kontu bat kontatzeko eskatzen zioten eta honela abesten zien: "Nik ikusi nituan San Juan gabian Txomin eta Bartolo tabernako atian...".

9. Hilerriak elizan; olatak abadearentzat

- **Erref**: GER-019/030
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:33:52. **Bukatu**: 00:36:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Domeka guztietan 11etako mezara joan behar. Familia bakoitzak bere hilerria edukitzen zuen elizan. Nolakoa izaten zen. Han, manteltxo gainera dirua botatzen zen; aurreragoko sasoietan, diruaren ordez olatak, ogi txikiak. Olatak abadearentzat izaten ziren. Abade batek horren inguruan esandakoa.

10. Pazko egunean amabitxik besoetakoari pazko mokotsa

- **Erref**: GER-019/032
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:36:57. **Bukatu**: 00:38:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Pazkoetan amabitxik bere besoetakoari pazko mokotsa ematen zion. Ogi normala izaten zen, gainean arrautza egosiarekin. Ogia, artoa eta taloa etxean egiten ziren labean.

11. Galtzontzillorik ez garai batean

- **Erref**: GER-019/044
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:53:53. **Bukatu**: 00:54:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Galtzontzillorik ez zen egoten garai batean; alkandora luzea erabiltzen zen praketan ondo sartuta.

12. Seme-alabarik izan ezean, arreoa itzuli egiten zen

- **Erref**: GER-019/047
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:55:23. **Bukatu**: 00:56:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Ezkontza kontratuak egiten ziren eta arreoan zer eramango zen ondo zehazten zen idatziz. Ezkondutako bikoteak seme-alabarik izaten ez bazuen, arreoan ekarritako gauzak kanpotik etorri zenaren etxera itzultzen ziren berriz.

13. Gabonetako ohiturak, ogiarekin lotuta

- **Erref**: GER-019/053
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 01:03:30. **Bukatu**: 01:05:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Gabonetan, otorduaren aurretik arrosarioa errezatzen zuten. Ogiaren inguruko ohiturak: ogi zatitxo bat mantel azpian gordetzen zen. Beste ogi zati bat erre egiten zuten. Gero, ogi zati hura azukrearekin gozatutako ardotara bota eta edan.

14. Aitita Tomasen eguna

- **Erref**: GER-019/055
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 01:06:43. **Bukatu**: 01:08:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Santo Tomas egunean, aititaren egunean, aititak gailetak eta anisa ematen zizkien. Bere nagusiari kapoi bi eramaten ei zizkion eta bueltan mandarinak ekarri. Egun horren zain egoten ziren. Aititak bakailaoa bizkaitar erara nola prestatzen zuen.

15. "Zantiratua" sendatzeko belarra

- **Erref**: GER-019/059
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:11:01. **Bukatu**: 01:12:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
"Zantiratua" sendatzeko belar bat ("llantén") ipintzen zen, oliotan bustita. Garai batean sendabelar asko erabiltzen zen.

16. Asunekin astinaldia, gripea sendatzeko

- **Erref**: GER-019/061
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 01:12:54. **Bukatu**: 01:14:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Duela urte asko gripe izurritea egon zen. Auzoko gizon bat gaixotu egin ei zen. Amak asunekin astindu zuen eta sendatu egin zen.

17. Infekzioak sendatzeko: epai-belarra

- **Erref**: GER-019/062
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 01:14:25. **Bukatu**: 01:15:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Infekzioak sendatzeko epai-belarra erabiltzen zen. Teilatuan irteten ei ziren. Nolakoak izaten ziren. Erredurentzako krema ere egiten zuten, argizariarekin nahastuta.

18. Txindorraren eta pinpilinpauxaren inguruko sineskeriak

- **Erref**: GER-019/067
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 01:18:45. **Bukatu**: 01:19:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Amaren sineskeriak. Neguan txindorra leihora etortzen zenean, "notizixek, eroan zaharrak eta ekarri barrixek" esaten zen. Pinpilinpauxa zuri bat ikusiz gero, albiste onak; beltza izanez gero, berriz, txarrak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com